

Ezpalak

JON TORNER

Fertxu Izquierdok irabazi du euskarazko literatur egitasmoentzako Iruñea Hiria beka. Izquierdok 9.400 euroko beka jasoko du *Mendeko liskarra* eleberri beltza idazteko. Liburua amaitutakoan Iruñeko Udalak argitaratuko du.

Karlos Linazasororen *Diotenez* narrazio laburrez osatutako liburua eta Aitziber Etxeberriaren *31 baioneta* nobela kaleratu ditu Erein argitaletxeak. *Diotenez* liburuarekin Erein Euskadiko Kutxa saria irabazi du Linazasorok. Etxeberriak, bestalde, Donostia Opera Prima saria jaso du *31 baioneta* lanari esker. Bestalde, Beñat Sarasola donostiarrak *Kaxa huts bat* liburua plazaratu du Susa argitaletxearekin. Sarasolak 48 poema bildu ditu lan horretan. Azala Xabier Gantzarainek diseinatu du.

Sexty Sexers taldeak rock ukitu-ko hamar kanta bildu ditu *Urkamendi blues*



(Gaztelupeko hotsak) disko berrian. Berako boskoteak maiatzaren 3an aurkeztuko du bere bigarren lana, Bilboko Kafe Antzokian. Bestalde, *28.000 puñaladas* diskoa kaleratu zuenetik bi urte pasa direnean, Marea taldeak bosgarren diskoa plazaratu du DRO East West diskoetxearekin. *Las aceras están llenas de piojos* du izena nafarren lan berriak. Donostian aurkeztuko dute, hilaren 11n.

Koldobika Jauregi eskultoreak Irakeko inbasioa oinarri hartuta egin zuen *Setioa I* obra Bilboko Guggenheim museoan egongo da ikusgai ekainaren 3a arte. Jauregik, Guggenheim museoaren 10. urteurrenaren harira abian jarritako *Laborategiak* egitasmoaren baitan egin du artelan hori. Artisten lan egiteko modua islatzea du helburu ekimen horrek; hala artista alkizarrak *Setioa I* obra sortzeko egindako marrazkiak eta eskultura txikiak ere jaso ditu erakusketak.

Hitzarte, 'Hitza'-ren aldeko arte enkantea

"Bizkaiko Foru Aldundiak eta eskualdeko hainbat udalek daramaten dirulaguntza politikaren aurrean", pausorik eman ezean *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* egunkariaren argitalpen egunak 6tik 5era pasa daitezkeela adierazi dute egunkariko arduradunek. Hori saihesteko hainbat ekimen jarri dituzte abian. Horietako bat *Hitzarte* arte enkantea da. Eskualdeko zazpi artistek euren obrak eman dituzte dohaintzan eta orain enkantean jarriko dira. Jose Pablo Arriaga, Xiri Andonegi, Felix Beristain, Carlos Baudi, Mikel Lertxundi, Jose Angel Uberuaga eta Eneko Arruzarte artisten lanak maiatzaren 4tik 20ra bitartean izango dira ikusgai Markina-Xemeingo Uhagon kulturagunean.



XIRI ANDONEGI

Literatura Unibertsala bildumarako 2007ko itzulpen lehiaketa martxan da

EIZIEK Literatura Unibertsala bildumarako 2007ko itzulpen lehiaketarako deialdia egin du. Aurten 24 idazleren liburuak hautatu dituzte. Emily Brontëren *Wuthering beigts*, Milan Kunderaren *L'insoutenable légèreté de l'être*, Fernando de Rojasen *La Celestina*, Marcel Prousten *Du côté de chez Swann*, Nadine Gordimerren *Burger's Daughter*, Joseph Rothen *Redetzky-marsch* eta Anxel Foleren *A lus do candil* daude, besteak beste, itzulgaien artean. Itzulpenak aurkezteko epea maiatzaren 21ean amaituko da. Informazio gehiago: www.eizie.org.

[Inazio Mujikak *Galtzaundi* aldizkarian](#), Euskadi Sarien harira:

«Ez dut uste esku beltzen bat dagoenik. Ez dut esan nahi hobetu behar ez duenik. Arau hausteak izan badira neurriak hartu beharko dira, baina okerrak ez dira zuzentzen gertatu eta bi urtera. Momentuan zuzendu behar da eta han zeudenen iritzia jaso behar da. Euskadi Sariaren inguruko auzia umeke-ria da. Magnifikatu gabe, Euskadi Sariak badu bere tokia eta ni ziur nago, ez balego halako sari-rik, jende horrek salatu egingo lukeela bere falta».

[Ramon Bareak *El Correo* egunkarian](#). Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren inguruan: «Hemen inor ez da Madril edoartzelona-ra joan, gauzak nola egin behar

diren ezagutzeko. Mahai gainean proposamen bat dago, baina agintariak urduri jartzen dira eta ez dira esku hartzera ausartzen. Mendek pasako dira Molière euskaldun bat sortu aurretik».

[Oihane Perea Arabako bertsolari txapelkunak *Gari alean*](#)

(www.argia.com): «Kuri osoa bada ere, orain ari naiz sentitzen benetan bertsolari, horri lehen-tasuna emanez eta lantzen. Txapelketaz haratago begiratu dut eta bertsoa lantzen aritu naiz. Horrela iritsi naiz txapelketara, burua jantziago eta ikasita. Txapelketarako ere prestatu nintzen, baina aparteko ezer egin gabe. Nahiko argi neukan zer egin nahi nuen ariketa bakoitzean. Bestetan baino kalkulatuago joan naiz, bai».